

Malkorik gabe

Iñaki Uria

Berria, 2004-10-05: VII.

Ez zait malkorik geratzen Martinen heriotzan. Denak bota nituen *Egunkaria* itxitakoan guardia zibilek Martin hil zela esan zidatenean, tortura eta tortura artean.

Hobe. Begiak busti gabe gogoratuko dut Martin. Gizon osoa. Bizitza honetan egin beharrekoak egin eta gero, Heriori beldurrik ez ziona. Kitatuak zituen bizitzarekiko zorrak. Berak bere buruari jarritako zorrak, jomugak, edo apustuak. Gutxi ezagutuko dituzu lasaitasun horrekin Txingudiko itsasoari begira. Muga dugun horretan mugarik ez dela jakinaren gainean. Bizitzak hiltzea dakarrela argi izateak dakarren lasaitasunaren jabe. Lasai.

Bizi oso bat eta obra oso bat utzi dizkigu atzean. Irakurriak nituen batzuk, eta kartzelaldiak beste batzuk irakurtzeko beta eskaini dit. Etorriko dira aztertuko dutenak. Esango nieke ezagutu nuen pertsona, gizon fina, sentikorra eta ona erabat antzeman daitekeela bere idatzietan. Historia arloan, literaturan nahiz kazetaritzan egindakoak oso kontuan hartzekoak izan dira gure aurreko belaunaldiarentzat, geuretzat eta ondoren datozenentzat.

Herrigintzan, Euskal Herrigintzan, Tradizioa eta Historia falta zituen. Han joan zen horiek bilatzera eta lantzerara. Literatura eta Modernitatea ere behar zituen gure euskara zaharra biziberritzeko, eta hor jorratu zituen. Maisuki jorratu eta eder asko uztartu zituen zaharra eta berria.

Gerrak eraman zuen Ameriketako erbestera. Han kazetaritza hautatu zuen lanbide gisa ahal izan zuenean. Literatura maitale gisa. Venezuelako espainiera erabili eta gorena jo zuen horretan.

Baina Martin ez zebilen lorietarako. Erbestean zegoen eta herriratu beharra zeukan. Euskal Herriak osatu beharra zeukan. EAJn itzaleko eta isilpeko lanean ibili beharko bazuen ere. Herria zeukan egiteko eta askatzeko, ez bakarrik literatura bat edo estilo bat.

Adorea eta kemena behar da familia osoa hartu eta Ameriketatik Euskadi izan nahi zuen batera itzultzeko. Lorientik lanera itzultzeko. Erabakiek egiten badute pertsona bere bizitza jitean, Martin bezalako pertsona gutxi agertuko zaizu, hain erabaki sendo eta bere pentsakizunarekin hain bat datorrena.

Deia-n, Jaurlaritzan eta EAJn arazoa sortuko zuen behin eta berriz, euskara sustatzeko nahikoa egiten ez zutela eta. Halaxe ezagutu genuen guk. Eusko Jaurlaritzan Euskara Sustatzeko zuzendari zela. Eztabaida bizian mahai-inguru eta hitzaldietan. Epelak eta bi entzun behar izan zizkigun. Nork esango zigun orduan gurekin batera etorriko zela *Egunkaria* sortzera. Nork, bera izango zela *Egunkaria*-ko lehendakaria. Baina halaxe erabakitzen zuen Martinek. Erosotasunaren orde, konpromisoa. Diru seguruaren orde, apustua. Zubi izan genuen belaunaldien artean. Zubi, abertzaletasuna ulertzeko ikuspegiaren artean.

Egunkaria izan baldin bazen egia bihurtutako bere ametsa, Lizarra-Garaziko garaia izan zen ezagutu nion azken poza eta itxaropena. Ahalegin haren ondorioz beti borrokatutako Euskadi hori ikusteko ilusioa piztu zitzaion.

Gero etorri ziren etenak. Gero *Egunkaria*-ren ixtea. Gero etsipena zainetaraino sartu nahi izan zigutenekoa.

Martinen adorea eta kemena geratzen zaizkigu guri, bere obrarekin batera iparrorratz gisa. Euskal Herri askea eta euskalduna zor diogu Martini. Maitasunez eta malkorik gabe.